

DANTZA. 'Quercus endorphina' diskoaren sei kantu eta Kepa Junkeraren argitaratu gabeko pieza bat erabiliko ditu

Txalaparta doinuekin dantzan

Nacho Duatoren 'Txalaparta' koreografia estreinatuko dute bihar Madrilen Espainiako Dantza Konpainiako kideek



ALBERTO ELOSEGI

Oreka TX taldeko Arkaitz Martinez eta Igor Otxoa txalapartariak.

	Koreografia: 'Txalaparta' Egilea: Nacho Duato Musika: Kepa Junkera eta Oreka TX Figurinak: Nacho Duato Eszenografia: Jaffar Chalabi Argien diseinua: Nicolas Fischtel (A.A.I.) Estreinaldia: Espainiako Dantza Konpainiak maiatzaren 18an, Madrilgo Teatro Realen
--	--

Ainhoa Oartzabal | **DONOSTIA**

KEPA JUNKERA

Musikaria

«Sinbolikoa izango da Madrilgo Teatro Realean txalapartarekin dantza egiten ikustea»

ARKAITZ MARTINEZ

Txalapartaria

«Halako maila ona duen koreografo batek gure musika aukeratzea pozgarria da oso»

painiako hamalau dantzarik emanaldi orijinala eskainiko dute; dantza emanaldiarekin batera euskaraz abestuko baitute: «Mikel Laboak abesten duen *Saustatik erbetegira* kantua abestu egingo dute dantzariek». Kantu honekin emango diote amaiera *Txalaparta* koreografiari.

«Euskal musika normalizatzeko balioko du»

Junkerarentzat «sinbolikoa» izango da Madrilgo Teatro Realean txalapartarekin dantza egitea: «Mugak gainditu eta euskal musika normalizatzen laguntzeko balioko du honek; gure musika entzun daitekeela erakutsiko du». Antzeko proiektuei bidea irekiko diela iruditzen zaio.

«Halako maila ona duen dantzari batek gure musika aukeratzea pozgarria da oso. Gainera, musikaren munduan dabilen jende askorekin du harremana», adierazi digu Oreka Tx-eko Arkaitz Martinezek. Diskoa atera eta segituan halako proiektu bat egitea nahita ere ezingo zutela lortu diote.

Txalapartariak ez dute ikusi koreografia, datorren astean ikusiko dute, bweraiek diskoa Madrilen aurkeztu ondoren. Junkera, berriz, estreinaldian izango da.

Txalaparta, dantzarien eskutik igoko da oholtza gainera bihar, Madrilgo Teatro Realen: Espainiako Dantza Konpainiak Nacho Duatoren *Txalaparta* koreografia estreinatuko du. Musika tresna horren erritmoari jarraiki osatu dute koreografia, txalapartari gorazarre egiteko asmoarekin. Horretarako, Elkarlaneanek kaleratu berri duen *Quercus endorphina* txalaparta disko abesti melodikoak erabili dituzte. Dantza ikuskizun honekin batera *Petite Mozart*, *Enemy in the figure* eta *Romeo y Julieta* eskainiko dituzte.

«Dantza, egurra, metala eta harria uztarturik, barruan ezkutu gorderik ditugun doinu eta mugimenduak agerraraziko dizkigute koreografia honen bidez», dio Kepa Junkerak *Txalaparta* dantza ikuskizunaren ekarpenari buruz. Hain zuzen, Junkerak ekoitzi du *Quercus endorphina* txalaparta diskoa.

Teatro Realen euskaraz

Txalaparta disko horretako sei kantu eta Kepa Junkeraren argitaratu gabeko kantu bat erabili ditu Duatok koreografia egiteko. Junkeraren iritziz, txalapartaren doinu minimalista eta xumeagatik aukeratu du Duatok musika mota horrekin lana egitea.

«Inon argitaratu ez dutan *Izail* izeneko kantua erekin hasiko da koreografia», azaldu dio EGUNKARIARI Bilboko musikariak. Koreografiako beste bost kanta berak konposaturikoak dira, txalaparta diskoan ageri diren ondoko hauek: *Keinuka ilargiari*, *Okabe & Landarbaso*, *Uluka*, *Ortizimuga* eta *Saustatik Erbetegira*. Kantu horietan Oreka TX taldeko Arkaitz Martinez eta Igor Otxoa txalapartariak jotzen dute txalaparta, baita *Adabegian* ere, eurak konposaturiko lanean. Azken kantu hau ere erabiliko dute bihar estreinatuko den ikuskizunean.

Junkerak jakitera eman digunez, Espainiako Dantza Kon-

osatu du koreografia berri hau.

Diskoarekin entseatu dute hilabeteotan koreografian parte hartzen duten 14 dantzariek: «Txalapartariak ezin izan dute entseguetan izan, bat-batean egiten baitute musika, eta nik beti musika bera behar nuen koreografiaren estruktura gordetzeko». Duatok ez duela dantzarik egingo zehaztu digu.

Jaffar Chalabik egin du *Txalaparta* koreografiaren eszenografia, eta musika tresna honi eman dio protagonismoa. Izan ere, txalaparta handi batek beteko du oholtza. «Dantzariek txalapartaren egurren artean egingo dute dantza; nolabait esatearren, bizia emango diote txalapartari».

Koreografia hau txalaparta berari eta txalapartaren doinuari egiten dion omenaldi bat da, «ez du bestelako helbururik».

NACHO DUATO KOREOGRAFOA

«Txalapartari egiten diodan omenaldi bat da»

A.O. | **DONOSTIA**

Lanpeturik dabil Nacho Duato, ostiralean Espainiako Dantza Konpainiak hiru obra eskainiko baititu Madrilgo Teatro Realen, bere zuzendaritzapean. *Txalaparta* da horietako bat, eta entsegua hasi aurretik erantzun ditu EGUNKARIAREN galderak.

«Miguel Boserren etxean entzun nituen txalaparta nagusi zen kantuek lehenengo aldiz [*Quercus endorphina* diskoak], eta ikaragarri gustatu zitzaizkidan», azaldu digu Espainiako Dantza Konpainiako zuzendariak. Musika horrekin koreografia bat egin zezakeela pentsatu omen zuen segituan, «txalaparta doinuekin dantza mugimenduak sortzea, alajaina».

Kepa Junkerari bere asmoen berri eman eta *Quercus endorphina*ko sei kanturekin eta Junkeraren beste batekin



KOREOGRAFIA

«Txalapartaren egurren artean egingo dute dantza; bizia emango diote»